

Dezakeenak “bio” eta ez daukanak diabetesa

Gizakiak jateko duen eskubidea “ongi jateko” eskubidea baldin bada, hau da, jatunaren osasunean kalteak eragingo ez dituzten elikaduraz asetzeari, orduan eskubide hori gizarte aurreratuetan ere batzuen eskueran dago soilik. Klase diferentzien arabera, jan klase diferentek.

GIZENTASUNAK ETA DIABETESAK alar-
ma aspaldi piztuarazi zuten: XXI. men-
deko gaixotasun izendatuta daude. Gai-
tzotan txapeldun dira, noski, diru
gutxien irabazten duten herritarrak.
Baina aldi berean, azken hogeita bost
urteotan modan jarri dira “bio”, ekolo-
giko edo organiko etiketa daramaten
produktuak ere... horiek pagatzeko gai
diren artean.

Bi fenomenoak bateratsu gertatu
dira, AEBetan behintzat. Telebistan
programa famatuak bertako tomatearen
hamaika bertuteak kantatzen zituzten
garai berean, Ronald Reaganek abian
jarri zituen behartsuen kontrako politi-
ka neoliberalak, sekula baino jende
gehiago kondenatuz janari bankuetara
eta ongintza sozialeko otorduetara.
Bateratsu suertatu ziren ere jaki ekologi-
koen estandarrek erabakitzea eta korp-
razio handiek auzoetako supermerkatu
txikien atek ixtea.

Dezaketenen elikaduraren eta ezi-
nean dabiltzan jendeenaren artean
sakondu den leizeaz idatzi du liburua
Mark Winnek: *Closing the Food Gap:
Resetting the Table in the Land of Plenty*
–Janarietako diskriminazioa konpon-
du: Mahaia berrantolatatu oparotasuna-
ren herrialdea–. Mark Winne hogeita
bost urtez aritu da janariaren berdintasu-
na sustatzen GKE batean, eta erretre-
tara iritsi denean idatzi du liburua,
ikusita eta ikasitakoak bildurik. Orriota-
ra ekarri ditugun iritziak *Alternet* web-

gune aurrerakoian urtaril honetan
plazaratu duen atalean daude.

Winnek kontatu duenez, telebistako
programa famatu batek *–60 Minutes–*
eman zion hasiera Euskal Herrian bio-
logiko edo ekologiko eta ingeles hiztu-
nen artean organiko deitzen duten
korronteari. “Yuppie jendea izan zen
lehen erreakzionatzen”, idatzi du Win-
nek. Izatez, ez zuten bilatzen gurasoek
betidanik beren familietarako nahi izan
dutena baizik: ahalik eta elikadurarik
osasungarriena. Laster ugaritu ziren eti-
keta berriak korronte horretan: integra-
la, begetarianoa, veganoa, organikoa,
bio, baserrikoa... Produktua bertakoa
izatea ere gero eta gehiago baloratu zen.

Denbora berean, etxean hilabete
bukaerara larri iristen ziren familietan ez
zuten finezia horietan galtzeko ez den-
bora ez dirurik. Kontua ez da beren
familietarako ez dituztela janari onak
nahi, baizik eta horiek eskuratzeko
aukerarik ez daukatela.

Mark Winne Connecticut estatuan
Hartford Food System GKEan aritua
da mende laurdenez. Hartford hiriko
auzo askotan ibilia da bertako herrita-
rrekin elikaduraz hitz egiten.
Clay/Arsenal auzoan, adibidez. “Txi-
rotutako hiri auzotegi orotan bezala,
hemen ere ez zegoen janari onik sal-
tzen zuen komertzio bakar bat. Berta-
ko bizilagunen artean gosea, loditasu-
na eta diabetesa AEBetako batz
bestekoaren bi edo hirukoitza zen.

Michael Newman izeneko batek Interneten
utzi duen argazki honetan hipermerkatur
gurasoekin erosketak egiten dabilen mutikoa
harriduraz begira dago barazkiei gurditxotik.
Gizarte hiritartuetan nozitzen diren
eritasunetako asko –diabetesa aipatzen da
sarri, baina zerrenda oso luzea da– adituek
hein handi batean elikadurari egozten dizkiote.
Hiritarrek fruitu eta barazki gutxiegi jaten
dutelako batetik eta bestetik karbohidrato
birfindu, azukre eta grasa desegoki larregi
irensten dutelako. Eredu kulturelek badute
garrantzia jendeen elikatze moduetan, baina
familiek janarietarako daukaten dirua
erabakiorra da hautuetan. Ez da kasualitatea
jaki merkeenak izatea gehien irauten dutenak,
gehien asetzen dutenak, zapore nabarmenak
daukatenak, adikzioak eragiten dituzten
gehigarriak dituztenak... haurren maiteenak.

Auzo hartan ez zen bizi hispanoak eta
afroamerikarrak besterik”.

Auzo txiro horretan, hasteko, herri-
tarrek ez zaukaten eskueran janari fres-
ko eta merkerik, beraiek lortu nahi
arren. Ondo hornitutako super edo
hiper batera joatekotan autobusez edo
taxiz egin behar zuten. Horregatik,
erosketetara hilabetean behin edo birri-
tan joaten ziren, eta erosterakoan pre-
zioa zen gehien begiratzen zutena.

Janari organikoak zer diren bada-
kite auzotar horiek, noski. Definitzeko
eskatuta, “benetakoa”, “naturala”,
“osasungarria” edo “zertaz egina
badakizuna” ideiak azaltzen zituzten.
Aldiz, janari prozesatuak “kimikoz
beteak” eta sarritan “toxikoak” direla
badakite. “Janari organikokoak eta
bertakoak bikainak direna ondo daki-
te. Zaharrenei garai bateko zapore,
leku eta denborak oroitarazten dizkie-
te. (...) Haurrak dituzten emakumeak
ohartzen dira beren umeentzako one-
nak horiek lirakekeela, alegia, beraiek
eskuratu ezin dituzten elikagai horiek”.

Zer dira hosto berde horiek?

Ondo elikatu nahia *cool* da Ipar Ameri-
kan ere. *Newsweek* astekariak gaiari
azala eskaini zion 2006an, titulu hone-
kin: “Janariarekiko interesa berriro
berotu da”. *Wall Street Journal*en ere
lehen orria eman zaio, eta bertan John
Mackeyk idatzi du: “Janari organiko-
z elikatzea ez da arin pasatuko den



moda. Balio sistema da, sinesmen sistema. Gizartearen korrante nagusian txertatzen ari da”.

Gero eta gehiago baloratzen dira janariaren zapoak, ingurumenean duten eragina, animalien ongizatea, politikoki zuzena izatea. Eskolen arteko konpetentzian, kantuan janari kaxkarra eskaintzen duten ikastetxeen aldean beste batzuek haur eta gaztetxoentzako “otordu jasagarriak” eskaintzen dituzte propagandan. Bestalde, familia gazte ugari egin du ihesi bizi kalitate kaxkarreko guneetatik periferiako kokagune sanoagoetara. Baina *american dream* hori ez dago denen eskura, “amets europarra” ez dagoen gisa berean.

Winnek liburuan kontatzen du bi ildo nagusitatik bideratzen direla janari hobea herritar guztiengana hurbiltzeko

ahaleginak. Batetik daude horretan ari diren elkarte pribatuak eta GKEak. Estatu Batuetan asko dira kaletarrek eta baserritarrek auzolanean egiten dituzten baratzeak, eta GKE batzuek horiekin lotuta dihardute. Beste batzuk saiatzen dira bazter auzoetan ireki eta mantentzen produktu fresko hornitutako komertzio txikiak. Bestetik, badira administrazioak sortutako erakundeak, diru gutxiko emakume, haur eta zaharrei nekazaritzako produktuak eskuratzeko helburua dutenak, eta horietara ere iritsi dira kalitatearekiko kezka.

Baina hala eta guztiz ere, Winneren liburuaren izenburuak salatzen du janariari dagokien gero eta handiagoa dela AEBetako herritarren arteko etena. Daukatenen eta ez daukatenen artekoa. “Gizarteko maila guztietan ez

bada lortzen gainditzea bi janari sistema egon behar hori, pobreen janariak eta aberatsenak egotea alegia, gure lorpenak marjinalak izango dira”.

Alternet gunean irakurleen parte hartze beroa eragin du Mark Winne-ren artikulua. Gaiak hari mutur asko baitauzka. Badira, adibidez, irakurleak azpimarratzen dutenak diru kontua adina kultura arazoa dela, ohiturena. Azken urteotan konpainia handiek eginiko kanpainaren ondorioz, herritar askok besterik ahal izanik ere nahiago dutela zabor-jana bazkatzen jarraitu, beren gustamena arras atrofiatuta dagoelako.

Irakurle batek mezu labur hau utzi du: “Emaztea eta biok pobreak gara, eta organiko elikatzen gara. Dena geuk egiten dugu eta organiko jaten dugu. Jende txiro asko ikusten dut telebista pantaila handiak, Nike arropak eta bideojoko mordoa dauzkatenak. Guk ez dugu telebistarik, liburuak dauzkagu, ordenadorea, altzari gutxi, eta abar. Osasungarri elikatzeko ez dago aitzakiarik. Sentitzen dut”.

Etxekoandre gazte batek protesta egin du honelako eztabaidetan bera bezalakoek ikuspuntua falta ohi delako gehiegitan. “Jarri zaitzete hirian bizi den ama gaztearen larruan: etxean zain daukazue aho mordoxka bat beti gose dena, otorduak prestatzeko denbora falta, garraio publiko kaxkarrean mugitu behar, supermerkatu ez inguruan, karrotxo eraman behar aldean edo lagun batekin joan hilean behin autoan hiperrera”... ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Produkturik onenak,
Zinkunegi Optikan

Aukerarik zabalena
betaurreko graduatu,
ukipen-lente,
audiofono eta
eguzkitako
betaurrekoetan.

ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani kalea - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL.: 943 420 624